

‘Euskaraz bizi nahi dugu’ manifestazioa Kontseiluak deituta

ABENDUAREN 1ERA KO, Donostian elkar-
tzeko deialdia egin du Euskararen Gizarte
Erakundearen Kontseiluak. *Euskaraz bizi
nahi dugu* du leloa manifestazioak, eta eus-
kalgintza, kultura eta gizarte arloko hain-
bat eragilek, eta norbanako euskaltzaleek
egin dute bat manifestazioarekin.

Euskaraz bizi ahal izateko eskubidea
azpimarratu du Kontseiluak, eta hizkun-

tza komunitatea sendotzearen beharraz
ohartarazi. Komunitatea osatzeko ezin-
bestekotzat du euskararen berezko lurral-
dean bizi eta lan egiten duten guztiek eus-
kara ezagutzea, baita euskara ezagutzeko
eskubidea izatea ere. Ezagutzaz gain
—Kontseiluak dio—, euskaldunak hizkun-
tza erabiltzeko aukerak izan behar dituela,
euskaraz biziko bada.

Euskalerria Irratiak 25 urte desentxufatuta

Irakurleak hau irakurri duenerako, biha-
ramuna pasatzen edo pasata egongo dira
Euskalerria Irratiko langileak, laguntzai-
leak eta entzuleak. Azaroaren 7an, 25.
urteurrena ospatu nahi izan zuten eta
Atarrabian musika gaua antolatu zuten.
Nola ez, unplugged estiloan egin zuten,
irratia bera dagoen bezala, “entxuferik
gabe”. Urteurren ospakizuna aldarria ere
izan baita, alegia, mende erdiz Nafarroa-
ko Gobernuak ukatu dien lizentzia eska-
tzeko baliatu zuten. Europako Kontsei-
luak, beste behin, esan dio Nafarroako
Gobernuari irratia egoera berrikuste-
ko, zergatik dagoen lizentziarik gabe
argitzeko.

Euskalerria Irratiak 8.000 entzule ditu,
900 bazkide, ehunka iragarle, 200 kolabo-
ratzaile eta hamaika langile. Epe motzeko
helburua 1.000 bazkidera heltzea da.



Euskararen Jatorria
elkartek Iruña-Veleiari
buruzko I. Nazioarteko
biltzarra antolatu du.
Antolatzaileen ustez,
biltzarrak aurkituzten
inguruko eztabaida argitzen
lagunduko du. Biltzarra
azaroaren 24an izango da
Gasteizko Europa Jauregian.
Besteak beste, Edward
Harris arituko da hizlari.
Arkeologo hori Harris Matrix
indusketa sistemaren
sortzailea da. Bermudan
egiten du lan eta hango
Itsas Museoko zuzendaria
da. Biltzarrean Eliseo Gilek
zuzendutako indusketa
lanari buruz hitz egingo du.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Sindikatu abertzaleen koherentzia

CCOOK ETA UGTK azaroaren 14an greba orokorra
deitu dute, murrizketa larriak ekarri dituen PPren eta
Espainiako Gobernuaren kontra erreferenduma eska-
tuz. Sindikatu abertzaleek (ELA, LAB, STEE-EILAS,
Hiru) ez dute bat egin. Deialdia, Europako Sindika-
tuen Konfederazioak antolatutako mobilizazioetan
sartzen da —ELA konfederazioko kide da—. Egoera
horrek aurreikusten du Hego Euskal Herrian azaroa-
ren 14ko grebak jarraipen murrizta izango duela.

Ondo ari al da, kasu honetan, sindikalgintza abertzalea?
Jadanik sei greba orokor izan dira 2009tik, baina
arrazoiak egon badaude gehiago egiteko, Espainiako
Gobernuaren eta erkidegoetako (EAE eta NFE) admi-
nistrazioen eraso kapitalistak bere horretan dirau, eta
sakontzen eta larritzen joango da soldatak, pentsioak
eta zerbitzu sozialak murrizten dituzten heinean. Sindi-
kalgintza abertzaleak borrokarako gaitasuna eta irmo-
tasuna erakutsi ditu. Oraindik hurbil dugu irailaren 29a;

greba orokorra antolatu zuten politika horien kontra,
eta orduan ez zuten bat egin CCOO eta UGTK. Jakina,
eraginkorrak izateko, guztiek defendatzen dute sin-
dikatuaren ekintza-batasun handiagoa. Alabaina, buruja-
betza politiko eta ekonomikoa eskatzen duten sindika-
tu abertzaleek protagonismoa eduki nahi izatea ere
logikoa. CCOO eta UGTK ekintzak Madrildik diseina-
tzen dituzte, eta bistan da euren espazioan, Espainiako-
an, protagonismoa dutela. Baina ezin dute ahaztu bes-
telako espazio ekonomiko, politiko eta sindikala
badagoela Euskal Herrian. Espazio horiek elkarrenga-
nako errespetua izango balute, etorkizunean ekintza
batasunerako akordioak egongo lirake. Hori gertatu
bitartean, azaroaren 14ko deialdiaz sindi-
kalgintza abertzaleak hartutako erabakia
koherentea da.

Juan Mari Arregi

